MANCOMUNIDAD UROLA GARAIA UDAL-ELKARTEA

**UROLA GARAIKO UDAL ELKARTEAREN BATZAR OROKORRAK 2016ko APIRILAREN 5ean EGINDAKO BILERAREN AKTA**

Legazpiko Kultur Etxeko aretoan, bi mila eta hamaseiko apirilaren bostean arratsaldeko zazpiak direnean bildu dira, lehen deialdian, Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako zinegotziak, Mankomunitatearen lehendakaria den Koldobike Olabide Huelga andereak deituta, Urola Garaia Udal Elkartearen Batzar Orokorra egitearren.

Honako zinegotziak izan dira ekitaldian:

Ezkio-Itsasoko udalekoak: Garikoitz Aiesta Etxaniz, Mikel Igartua Anduaga, Ander Unzurrunzaga Idiakez eta Maria Luisa Pildain Cenitagoya jaun-andreak.

Legazpiko udalekoak: Fco.Javier Iraeta Alvárez, Eric Galvez Alvarez, Iñigo Imaz Alcelay, Sagrario Etxabe Lasa, Gorka Iñurritegi Lasa, Andoni Aizpeolea Alustiza, Oscar Valbuena Pascual, eta Roberto Alonso Yebra jaun-andreak.

Urretxuko udalekoak: Jon Luqui Albisua, Itziar Agirre Berriotxoa, Igor Zubillaga Aguado, Juan Luis Albisua Garmendia, Maialen Fidalgo Mendizabal, Oihane Zabaleta Mujika, Iñaki Etxaniz Arregi, Unai Badiola Urrate, Nerea Altolagirre Berastegi, Aitor Otegi Epelde, eta Natividad Nieves Medina jaun-andreak.

Zumarragako udalekoak: Mikel Serrano Aperribay, Rosa Maiza Garrido, Victoriana Badillo Remedios, Aranzazu González San Vicente, María Victoria Portugal Llorente, Ricardo Lozano Landart, José Mª Bermejo

**ACTA DE LA SESION DE LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE LA MANCOMUNIDAD UROLA GARAIA CELEBRADA EL DIA 5 DE ABRIL DE 2016.**

En el salón de actos de Kultur-Etxea de Legazpi, siendo las diecinueve horas del día cinco de abril de dos mil dieciséis, se reúne, en primera convocatoria, los concejales de los municipios de Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu y Zumarraga, convocados por la Presidenta Sra. Koldobike Olabide Huelga, con el fin de celebrar Asamblea General Ordinaria de la Mancomunidad Urola Garaia.

Asisten al acto los siguientes concejales:

Del municipio de Ezkio-Itsaso: Sres/as. Garikoitz Aiesta Etxaniz, Mikel Igartua Anduaga, Ander Unzurrunzaga Idiakez y María Luisa Pildain Cenitagoya.

Del municipio de Legazpi: Ser/as. Fco.Javier Iraeta Alvárez, Eric Galvez Alvarez, Iñigo Imaz Alcelay, Sagrario Etxabe Lasa, Gorka Iñurritegi Lasa, Andoni Aizpeolea Alustiza, Oscar Valbuena Pascual, y Roberto Alonso Yebra.

Del municipio de Urretxu: Sres/as. Jon Luqui Albisua, Itziar Agirre Berriotxoa, Igor Zubillaga Aguado, Juan Luis Albisua Garmendia, Maialen Fidalgo Mendizabal, Oihane Zabaleta Mujika, Iñaki Etxaniz Arregi, Unai Badiola Urrate, Nerea Altolagirre Berastegi, Aitor Otegi Epelde, y Natividad Nieves Medina.

Del municipio de Zumarraga: Sres/as. Mikel Serrano Aperribay, Rosa Maiza Garrido, Victoriana Badillo Remedios, Aranzazu González San Vicente, María Victoria Portugal Llorente, Ricardo Lozano Landart, José Mª Bermejo Vega,

Vega, Inmaculada Albisua Irureta, Miren Antzine Biain Fernandez de la Reguera, Iñigo Peñagarikano Badiola, Josu Idigoras Egia eta Unai Orbegozo Uribesalgo jaun-andreak.

Bertan izan dira, halaber, Iñaki Gastañares Sanchez idazkaria, ekitaldiaren fede emateko, eta Fernando Arakama Fernandez kontu-hartzailea.

Lehendakariak bilerari hasiera eman ondoren, gai-zerrendako honako gaiak aztertu dituzte:

**1.- AURREKO SAIOKO AKTA.**
2015eko irailaren 17ko akta irakurri, eta aho batez onartu dute.

**2.- 2016ko EKITALDIKO AURREKONTUA ONARTZEA:**
**a) 2016ko Aurrekontu Orokorra**
**b) 2016ko plantilla organikoa**

Lehendakari andreak informazioa eman du Mankomunitatearen aurrekontu bateratuari buruz; horretan Mankomunitatearen beraren aurrekontua eta UGGASA sozietate publikoarena sartzen dira, 1.795.391,51 euroko kopuruaz.
Aipatu du betetzen direla eskatzen diren egonkortasun, iraunkortasun eta likidezia parametroak.
Ondoren sarreren atalaren banakapena egin du; sarrera nagusia udal ekarpenak dira (dena den, % 6,24ko jaitsiera izan dute 2015eko kopuruekiko).

Gastuari dagokionez, aurrekontu bateratuaren % 52 Mankomunitateari dagokio, eta % 48 UGGASAri; ondasun eta zerbitzu gastua eta pertsonal gastua bere

Inmaculada Albisua Irureta, Miren Antzine Biain Fernandez de la Reguera, Iñigo Peñagarikano Badiola, Josu Idigoras Egia y Unai Orbegozo Uribesalgo.

Asisten también el Secretario, Iñaki Gastañares Sánchez que da fe del acto, y el Interventor Fernando Arakama Fernández.

Declarada abierta la sesión por la Presidencia, se pasa seguidamente a tratar los asuntos del Orden del Día siguiente.

**1.- ACTA SESIÓN ANTERIOR.**
Dada lectura al Acta de la sesión celebrada el día 17 de setiembre de 2015, la misma es aprobada por unanimidad.

**2.- APROBACION DEL PRESUPUESTO PARA EL EJERCICIO 2016.**
**a) Presupuesto General 2016.**
**b) Plantilla Orgánica 2016.**

La Sra. Presidenta va desgranando la información referente al Presupuesto consolidado de la Mancomunidad, que engloba tanto el presupuesto de la Mancomunidad propiamente dicho cuanto el de la sociedad pública UGGASA, y que asciende a 1.795.391,51 €.
Comenta que se cumplen los parámetros exigidos de estabilidad, sostenibilidad y liquidez.
A continuación desglosa el apartado de ingresos correspondiendo el principal ingreso a las aportaciones municipales (que no obstante descienden respecto al 2015 en un 6,24%).

En cuanto al gasto el 52% del presupuesto consolidado corresponde a Mancomunidad

horretan mantentzen dira gutxi gorabehera, eta transferentzia gastuak gora egin du. Lehendakari andreak zehaztu duenez, gastu murrizte handiena izan duten partidak suhiltzaileak, Eguneko Zentroko garraioa eta administrazio orokorra dira.
Gastua handitzen den partidak aurrekontuan planteatzen diren zerbitzu berritzaile eta mankomunitate izaerakoak dira, hau da, mendekotasuna duten pertsonen familientzako zerbitzua, jarduera fisiko egokitu eta inklusiborako programa integrala, eta kirolean balioak indartzeko "horrek ez du balio" izeneko prestakuntza-ekimena.
Gastua handitzen duten beste partida batzuk honakoak dira: UGLEri eman mailegua, Co-work-erako ekarpena eta gobernu-organoetara zuzendua (suhiltzaile boluntarioei eskaini ezagutza ekitaldiagatik).

Gastu programetara bideratutako gastua xehatu du; gastu gehien daramatenak enpresa-garapena, enpleguaren sustapena eta gizarte zerbitzuetarako laguntza dira.

Ondoren aditzera eman du Uggasaren gastu aurrekontua, azalduz mantendu egiten direla 2015etik zetozen laneko ildoak, exoeskeletoaren proiektuko gastuan murrizketa izan bada ere, eta proiektu batzuk Aldundiaren diru laguntzak atera ahala zehazteko eta jasotzeko daude.

Hitzen txanda hasirik, lehendakariorde lehen Unai Badiolak azaldu du aurrekontuak, neurri handi batean, aurreko legegintzaldietan abiatutako proiektu estrategikoen jarraipena direla, eta horrexegatik positibo iritzi eta aldeko botoa emango dutela. Adierazi du kezka eragiten diela gastuetako igoerak, eta erne egon beharko dela, laguntzak jasotzeko

y el 48% a UGGASA, manteniéndose el gasto más o menos en bienes y servicios y en personal y aumentando en transferencias. Concreta la Sra. Presidenta en qué partidas se produce la mayor reducción del gasto: bomberos, transporte Centro de Día y en administración general.
En cuanto a las partidas que incrementan el gasto se concretan en: como servicios novedosos que se plantean en el presupuesto, por su carácter mancomunado, sería el servicio a las familias de personas dependientes, el programa integral de actividad física adaptada e inclusiva y una iniciativa formativa titulada "eso no vale" de fortalecimiento de los valores en el deporte.
Otras partidas que incrementan el gasto son: el préstamo a UGLE, la aportación al Co-work y en órganos de gobierno (por el acto de reconocimiento a los bomberos voluntarios).

Desglosa el gasto destinado a los diferentes programas de gasto siendo el desarrollo empresarial, la promoción de empleo y el apoyo a servicios sociales los que más gasto se llevan.

Seguidamente procede a dar cuenta del presupuesto de gasto de Uggasa señalando que se mantienen las líneas de trabajo que venían del 2015, salvo la reducción del gasto en el proyecto del exoesqueleto, y faltan por concretar y por incorporar algunos proyectos a medida que salgan las subvenciones de Diputación.

Iniciado el turno de intervenciones, el Vicepresidente primero, Unai Badiola, expone que estos presupuestos son en gran medida una continuación de los proyectos estratégicos iniciados en legislaturas anteriores y por eso lo ven positivo y votarán a favor del mismo. Indica

MANCOMUNIDAD
UROLA GARAIA
UDAL-ELKARTEA

gaitasunak ez dezan behera egin. Azaldu du Mankomunitatetik bultzatzen ari diren proiektu berriak positibo iruditzen zaizkiela, eta zainduko dutela benetan mankomunatuak izan daitezen eta elkarte guztiei hel dakizkien. Positibotzat aipatu du, halaber, Berdintasuneko ekarpeneko igoera.
Aipatu du UGGASAren aurrekontuarekin kezka gehiago sortzen zaizkiola. Zalantzak ditu Foru Aldundiak garapen agentziekin hartuko duen norabidearen inguruan, eta kezka du UGGASAn zenbait proiektu zuzkidura zehatzik gabe geratuko ote den.
Berrikuntzaren arloan, poza ematen dio Onbideratu estrategiak aurrera segitzeak, baina uste du ahalegina egin behar dela proiektu horretan Eusko Jaurlaritza gehiago murgil dadin.
Berriro errepikatu du kezka eragiten diela proiektu batzuk aurrekontuko zuzkiduraren zain geratzeak, egoera horretan baitaude, esaterako, Asintek, Garaituz programa, enpresa txikiak internazionalizatzeko laguntza-ildoak, etab.
Positibo ikusten du turismorako laguntzak handitzea.
Amaitzeko, errepikatu du kezka eragiten diela Foru Aldundiak proposa ditzakeen laguntzen inguruko definizio faltak.

Lehendakariorde bigarren Mikel Serrano bat dator aurrekontuak aurreko legegintzaldietan abian jarritako programa garrantzitsu zenbaiten jarraipena direlako iritziarekin.
Gogoratu egin du 2008ko urtean izan zen inflexio-puntua, orduan, egin zen diagnostikoaren bidez, bultzatu egin baitzen zenbait esparrutan sakontzea Mankomunitateko kolore politiko desberdinen arteko konfluentzia eta baterako lanarekin. Uste du zertzelada hori balioetsi egin behar dela, aurrerantzean izango diren erronkei heltzeko baliagarria

que les preocupa la subida en los gastos e indica que habrá que estar atentos para que no merme la capacidad de conseguir ayudas. Comenta que les parecen positivos los nuevos proyectos que se impulsan desde Mancomunidad, y velarán para que sean realmente mancomunados y lleguen a todas las asociaciones. Menciona como positivo también la subida en la aportación en Igualdad.
Señala que les surgen más preocupaciones con el presupuesto de UGGASA. Les surgen dudas sobre la dirección que tomará la Diputación Foral con las Agencias de Desarrollo, y les preocupa que queden proyectos en UGGASA pendientes de una dotación concreta.
En materia de innovación se alegra de que siga adelante la estrategia Onbideratu pero aboga por tratar de involucrar más en este proyecto al Gobierno Vasco.
Reitera que les preocupa que queden ciertos proyectos a la espera de dotación presupuestaria como Asintek, programa Garaituz, líneas de ayuda para la internacionalización de empresas pequeñas etc.
Ve positivo el aumento de ayudas al turismo.
Reitera, para finalizar, que les preocupa la indefinición de las ayudas que pueda proponer la Diputación Foral.

El Vicepresidente segundo, Mikel Serrano, coincide en que los presupuestos son una continuidad de programas importantes que se pusieron en marcha en anteriores legislaturas.
Rememora el punto de inflexión que se dio en el año 2008 en el que a través del diagnóstico que se hizo, y que impulsó a profundizar en distintos ámbitos con la confluencia y trabajo en común de los distintos colores políticos de la Mancomunidad. Cree que hay que poner en valor esa circunstancia que servirá para

izango da eta.
Proiektuen xehetasunetan sartu gabe, uste du pausoak egiten joan behar dela, denok batera joanda, esparru berriak ikertuz, turismoaren kasuan egin zen moduan. “Bertatik bertara” proiektuaren garrantzia azpimarratu du halaber.
Azkenik, aipatu du bidezko ikusten duela suhiltzaile boluntarioek hainbeste urtetan zehar egindako lana eskertzea.
Foru Aldundiari dagokionez, kontuan hartu behar da diru laguntzak birformulatzeko prozesu batean egongo dela, baina errespetatu egin beharko dituela aurreko deialdietan hartutako konpromisoak; beraz, konfiantza tarte bat eman beharko zaie. Dena den, uste du prest egon beharko dela Mankomunitatetik aurre egin ahal izan diezaiegun Aldunditik abian jar ditzaketen laguntza-lerroak direla eta sor daitezkeen obligazioei.

Lehendakariorde hirugarren Unai Orbegozok adierazi du aldeko botoa emango dutela aurrekontuek bultzada ematen dietelako proiektu estrategikoei, ETEekiko eta I+Grekiko konpromisoa jasotzeaz batera; Berdintasuna eta ingurumena ere bultzatzen dituzte. Azkenik, eskatzen du etorkizunera begira partaidetzazko aurrekontuen gaia jorratzea.

Lehendakari andreak eskertu egin ditu besteen ekarpenak, jada emana zen informazioa aberastu dutelako. UGLEri dagokionez, aipatu du langabeak prestatzeko programak aipamen berezia merezi duela. Adierazi du Onbideratu proiekturako diru laguntza jasoko dela Aldunditik, eta igoera handi batekin gainera, berrikuntzaren alde egiten delako.
Asintek-i buruz, aipatu du enpresa abian dela jada, eta bultzada emango zaiola, baina lanean hasi behar duenez horregatik jaisten dela laguntza. Antzeko zerbait gertatzen da exoeskeletoarekin.

afrontar los retos que se presentan.
Sin entrar en el detalle concreto de los proyectos aboga por ir dando pasos, todos de la mano, explorando nuevos ámbitos, como se hizo con el turismo. Destaca también la importancia del proyecto “Bertatik bertara”.
Por último señala que cree de justicia reconocer la labor desarrollada por los bomberos voluntarios durante tantos años.
En cuanto a la Diputación Foral hay que tener en cuenta que estará en un proceso de reformulación de las subvenciones pero tendrá que respetar los compromisos adquiridos en convocatorias anteriores, por lo que habrá que darles un margen de confianza. De todos modos indica que habrá que estar preparados para que desde la Mancomunidad podamos hacer frente a las obligaciones que puedan surgir con motivo de las líneas de ayudas que puedan lanzarse desde Diputación.

El Vicepresidente tercero, Unai Orbegozo, manifiesta que votarán a favor porque los presupuestos dan un empujón a los proyectos estratégicos, hay un compromiso con las pymes y con el I+D; también se impulsan la Igualdad y el medio ambiente. Por último pide que a futuro se trabaje el tema de presupuestos participativos.

La Sra. Presidenta agradece las intervenciones por enriquecer la información que se había dado. Sobre UGLE señala que merece una mención especial el programa de formación de desempleados. Señala que para el proyecto Onbideratu se recibirá subvención de Diputación y además con una subida importante, porque se apuesta por la innovación.
Sobre Asintek señala que la empresa ya está en marcha, tendrá apoyo, pero tiene que empezar a funcionar y por eso se baja la ayuda. Algo parecido pasa con el exoesqueleto.

Garaituz programari dagokionez, aipatu du lerro horrekin jarraitzeko asmoa helarazi diotela Aldunditik.

Ondoren gaia botaziora eramanda, aho batez erabaki da hurrena:

**Lehena.-** Hasierako onespena ematea Urola Garaia Udal Elkartearen 2016ko ekitaldirako aurrekontuari; honen laburpena, kapituluka, honakoa da:

GASTUEN EGOERA ORRIA

| Kap. | Izena | Euro |
|---|---|---|
| I | Langile gastuak | 100.226,00 |
| II | Ondasun arrunt. eta zerb. | 534.214,00 |
| III | Gastu finantzarioak | 0,00 |
| IV | Transferentzia korronteak | 592.853,00 |
| VI | Inbertsio errealak | 0,00 |
| VII | Kapital transf. | 0,00 |
| IX | Pasibo finantzarioak | 0,00 |
| | **GUZTIRA** | **1.227.293,00 €** |

SARREREN EGOERA ORRIA

| Kap. | Izena | Euro |
|---|---|---|
| I | Zerga zuzenak | 0,00 |
| II | Zeharkako zergak | 0,00 |
| III | Tasak eta beste sarrera batzuk | 24,00 |
| IV | Transf. korronteak | 1.227.257,00 |
| V | Ondare sarrerak | 12,00 |
| VI | Besterentzeak | 0,00 |
| VII | Kapital transferentziak | 0,00 |
| VIII | Aktibo finantzarioak | 0,00 |
| IX | Pasibo finantzarioak | 0,00 |
| | **GUZTIRA** | **1.227.293,00 €** |

**Bigarrena.-** Hasierako onespena ematea Uggasa sozietate publikoaren 2016ko ekitaldirako aurrekontuari; honen laburpena, kapituluka, honakoa da:

Sobre el programa Garaituz señala que desde la Diputación han transmitido que tienen intención de continuar con esa línea.

Seguidamente se somete el asunto a votación y, por unanimidad, se acuerda:

**Primero.-** Aprobar inicialmente el presupuesto de la Mancomunidad Urola Garaia para el ejercicio 2016 cuyo resumen por capítulos es el siguiente:

ESTADO DE GASTOS

| Cap. | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| I | Gastos de Personal | 100.226,00 |
| II | Bienes corr. y servicios | 534.214,00 |
| III | Gastos Financieros | 0,00 |
| IV | Transferencias Corrientes | 592.853,00 |
| VI | Inversiones Reales | 0,00 |
| VII | Transf.capital | 0,00 |
| IX | Pasivos financieros | 0,00 |
| | **TOTAL** | **1.227.293,00€** |

ESTADO DE INGRESOS

| Cap. | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| I | Impuestos directos | 0,00 |
| II | Impuestos indirectos | 0,00 |
| III | Tasas y otros ingresos | 24,00 |
| IV | Transf.corrientes | 1.227.257,00 |
| V | Ingresos Patrimoniales | 12,00 |
| VI | Enajenaciones | 0,00 |
| VII | Transferencias capital | 0,00 |
| VIII | Activos financieros | 0,00 |
| IX | Pasivos financieros | 0,00 |
| | **TOTAL** | **1.227.293,00€** |

**Segundo.-** Aprobar inicialmente el presupuesto de la sociedad pública Uggasa para el ejercicio 2016, cuyo resumen por capítulos es el siguiente:

MANCOMUNIDAD UROLA GARAIA UDAL–ELKARTEA

GASTUEN EGOERA ORRIA

| Kap. | Izena | Euro |
|---|---|---|
| I | Langile gastuak | 431.060,47 |
| II | Ondasun arrunt. eta zerb. | 433.538,04 |
| | **GUZTIRA** | **864.598,51€** |

SARREREN EGOERA ORRIA

| Kap. | Izena | Euro |
|---|---|---|
| III | Tasak eta beste sarrera bat. | 199.900,78 |
| IV | Transf. korronteak | 664.697,73 |
| | **GUZTIRA** | **864.598,51€** |

**Hirugarrena.-** Horrela onartzen den aurrekontua jendaurrean egongo da, 15 eguneko epean zehar, aurrez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia txertaturik, erreklamazio ondorioetarako. Erreklamaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko da aurrekontua, erabaki berririk hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.-** 2016ko urterako Plantilla Organikoa onartzea:

ESTADO DE GASTOS

| Cap. | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| I | Gastos de Personal | 431.060,47 |
| II | Bienes corr. y servicios | 433.538,04 |
| | **TOTAL** | **864.598,51€** |

ESTADO DE INGRESOS

| Cap. | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| III | Tasas y otros ingresos | 199.900,78 |
| IV | Transf. corrientes | 664.697,73 |
| | **TOTAL** | **864.598,51€** |

**Tercero.-** El Presupuesto así aprobado se expondrá al Público por plazo de 15 días, previo anuncio que se insertará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a efectos de reclamaciones. En el caso de no producirse reclamaciones se entenderá definitivamente aprobado el presupuesto, sin necesidad de nuevo acuerdo.

**Cuarto.-** Aprobar la Plantilla Orgánica para el año 2016:

## 2016ko PLANTILLA ORGANIKOA

| Lanpostu kopurua / Nº puestos | Izena/Denominación | Kategoria / Categoría | Taldea/ Grupo | Egoera /Situación | Oharrak/Observaciones |
|---|---|---|---|---|---|
| **LAN KONTRATUDUN LANGILEEI GORDETAKO LANPOSTUAK/ PUESTOS RESERVADOS A PERSONAL LABORAL** | | | | | |
| 1 | Kontsumoko teknikaria / Técnica de consumo | 2 | A2 | F | |
| 1 | Administraria / Administrativa | 5 | C1 | F | |

MANCOMUNIDAD
UROLA GARAIA
UDAL–ELKARTEA

## 3.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Unai Badiolak eskatu du, hain zuzen bere garaian aipatu bezala, errefuxiatuen gaiaren gainean lan egitea, egoki dakigukeenaren aldetik.
Kezka adierazi nahi du, halaber, AHTren gaiaren inguruan, Ezkio-Itsasoko Udalak ematen digun informazioari jarraikiz, eta eskatu du egungo egoera kezkagarriaren analisia eta irakurketa bat egitea.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, lehendakari andreak amaitutzat eman du bilera, arratsaldeko zortziak eta hogeita bost minutu direnean. Eta nik, idazkaria naizen aldetik, aztertu dena eta hartutako erabakiak erasota uzteko akta hau egin eta bertan jasotako guztiaren fede ematen dut.

## 3.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Unai Badiola solicita, tal y como comentaren en su momento, que se trabaje sobre el tema de los refugiados desde lo que nos pueda corresponder.
Quiere manifestar su preocupación por el tema del T.A.V., siguiendo la información que nos proporciona el Ayuntamiento de Ezkio-Itsaso, y aboga por hacer un análisis y una lectura de la preocupante situación actual.

Y no habiendo más asuntos que tratar la Sra Presidenta levanta la sesión siendo las veinte horas y veinticinco minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados extiendo la presente Acta, de todo lo cual, yo, el Secretario, doy fe.

| | |
|---|---|
| Akta hau 2016-07-18an egindako bileran onartu zen:<br><br>☒ Bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.<br><br>☐ Baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak. | Este acta fue aprobada en la sesión del día 18-07-2016:<br><br>☒ En su integridad, sin ninguna objeción.<br><br>☐ Si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas. |
| Idazkaria | Lehendakaria |